

Berotan handi, hotzetan txiki

Beroa egiten duen egunetan, zure etxea, ohea, autoa, jostailuak... handitu egiten dira? "Hori galdera tentela" pentsatuko du batek baino gehiagok; "Ez, noski! Bero edo hotz egin, aipatutako horien guztien tamaina beti bera da!".

Hori, ordea, ez da beti gertatzen; gauza batzuk hedatu, handitu egiten dira beroarekin, eta uzkurto edo txikitu hotzarekin.

Adibiderik nahi? Bada, gasa.


Bai, gasa, arnasten dugun hori. Esperimentu erraz batekin frogatuko dugu.

Behar dituzu

- Botila bat
- Puxika bat
- Ur hotzez betetako ontzi bat
- Ur beroz betetako beste bat

Zer egin


1. Hartu puxika, sar ezazu botilaren ahoan, eta ziurtatu ez dela gelditzen aireak alde egiteko zirrikiturik.
2. Hartu botila eta sartu ur berotan. Ikusi, ikusi nola puzten den puxika!
3. Atera ur berotatik botila, eta sartu ur hotzetan; puztutako puxika hustu egin da!



1.



2.



3.

Zer gertatu da?

Ur berotan sartzean, botila berotu egiten da, eta barruan duen gasa ere bai. Gasa, berotzen denean, hedatu egiten da, eta botilak ezin du gas hori hartu. Orduan, botilatik atera eta puxika puzten du atera den aireak.

Ur hotzetan sartzean, berriz, kontrakoa gertatzen da: airea hoztu egiten da, hoztean uzkurto egiten da, eta botilaren barrura itzultzen da.